

**EMAKUMEA ETA HIZKUNTZA:**

**ESTEREOTIPOETATIK**

**ERREALITATERA**

**Ainitze Etxaniz Iraola**

**Sakontze Egitasmoa**

**06/07 Ikasturtea**

**AURKIBIDEA:**

1. Sarrera.....	4-6
2. Emakume hizkeraren inguruko estereotipoak.....	6-14
a. Emakumea eta isiltsuna.....	7-8
b. Emakumea eta gezurra.....	8-9
c. Emakumea eta itxurakeria.....	9
d. Emakumeen hizketa gaiak.....	10
e. Emakumea eta kultura.....	10-12
f. Emakumeen hizketa hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik...	12-14
3. Estereotipoak gaindituz, hipotesietara bidean.....	15-24
a. Tabu linguistikoa.....	17
b. Prestijioa.....	18
c. Heziketa/hezkuntza.....	19-20
d. Desberdintasuna aberasgarri.....	20-21
e. Estereotipoetatik ikerketa zenbaiten emaitzetara.....	21-24
4. Emakumeen papera euskal gizartean.....	25-32
a. Euskal gizartea: gizarte matriarkala?.....	25-26
b. Euskal emakumea gizarte tradizionalan.....	27-31
c. Emakumea eta hizkuntzaren transmisioa.....	31-32

5. Euskal emakumea eta hizkuntza.....	33-41
a. Esaera zaharrak.....	33-36
b. Bertsolaritza.....	36-41
6. Ondorio nagusiak.....	42-45
a. Emakume hizketaren inguruko estereotipoak: ba ote da desberdintasunik euskal eta erdal atsotitzen artean?....	42
b. Estereotipoak alde batera utziz; errealitatera begiratzeko unea.....	43-45
7. Bibliografia.....	46-47

## 1. SARRERA:

Ikerketa honen gaia, emakumeen hizkeraren inguruan esan direnak aztertzea da bai eta hizkera horretan klabe antropologiko eta historikoek izan dezaketen eragina aztertzea ere.

Lanaren helburua, autore desberdinek emakumeen hizkeraren inguruan formulatutako hainbat hipotesiren bilketa egitea da bai eta hipotesi horiek aztertzea ere elkarrekin erkatuz, euren "egiantzekotasuna neurtuz"<sup>1</sup>.

Lanaren lehen zatian (2. eta 3. ataletan), beraz, emakumea eta hizkuntzaren arteko loturaz arituko naiz: estereotipoez, hipotesiez... eta horretarako Irene Lozano Domingoren *Lenguaje Femenino, Lenguaje Masculino* (1995) lanean hartuko dut oinarria bereziki.

Bigarren zatiari dagokionean (4. atalean), gurera gerturatu eta Euskal Herriko egoeran murgilduko naiz, betiere, hizkuntza eta emakumearen arteko harremanaren klabeak euskal emakumeak gure historian, gizartean, kulturean, etxean.... izan duen paperean aurkitu nahian horretarako emakume bertsolarien adibidea erabiliz.

---

<sup>1</sup> Egiantzekotasuna neurtu diodanean, zera esan nahi dut; emakume hizkeraren inguruan egin diren hipotesien artean benetako hipotesiak eta estereotipoak desberdindu nahi nituzkeela.

Sexua/generoa eta hizkuntzaren arteko harremanaren hastapenak antropologia hasi zen lantzen XX. mende hasieran:

*"Garai hartako antropologoak, mendebaldekoak ez ziren komunitateetan gizonak eta emakumeak berezko hizkuntzetan adierazten zituzten desberdintasunak azalarazten eta azaltzen hasten dira."* (HERNANDEZ, J. M.; 2007)

Hala ere, esan dezakegu 60-70eko hamarkadetan hasi zirela garatzen hizkuntza eta generoaren arteko erlazioa aztertzen zuten analisi konplexuagoak.

*"No ha sido si no hasta fechas recientes en que estos estudios se han multiplicado considerablemente, y han logrado matizar o arrumbar definitivamente varios tópicos llenos de subjetivismo [...] a propósito de afirmaciones tales como: el habla de las mujeres es conservadora, insegura, expresiva, sensible, solidaria, frente a la de los hombres, independiente, competitiva y jerárquica."* (LÓPEZ MORALES, H.; 1989 : 123)

López Morales-en lanean aurki ditzakegun hitz hauek ezin hobeto azaltzen dute lan honen helburu nagusietako bat, hau da, lehen esan bezala, emakume hizkeraren inguruan esan izan diren topiko eta estereotipoak arrazoian oinarritutako hipotesietatik bereiztea, hain zuzen ere.

Baina, lan honekin hasi baino lehen, argi utzi nahi nuke bide horretan lehen urratsak emanda daudela jadanik eta mendebaldeko

gure gizarteari dagokionean behintzat, estereotipo horietako hainbat eta hainbat gainditu direla jada edota horretarako bidean direla. Beraz, lan honen lehen zatian aurkitu ahal diren hainbat eta hainbat aipu eta ideia, atzera begiratzuz egoeraren ikuspegia bere osotasunean ulertu ahal izateko tresna bezala erabili nahi nituzke eta ez errealitatearen deskribapena egiteko.

## **2. EMAKUME HIZKERAREN INGURUKO ESTEREOTIPOAK:**

*"A través de los siglos, la cultura, en sus diversas formas, se ha encargado de crear una imagen del habla de la mujer que en muchos aspectos pervive en nuestros días. En obras literarias, refranes, chistes y canciones se han forjado estereotipos sobre el habla femenina que, como tales, reflejan la realidad previamente tamizada e interpretada por las ideas y prejuicios de cada autor." (LOZANO; 1995:19)*

Irene Lozanok bere lanean abiapuntutzat hartzen duen ideia hau hartuta, emakumeen hizkeraren inguruan hainbat autorek plazaratutako estereotipoetan barrena murgilduko gara lanaren lehen zati honetan.

Emakumeen hizkeraren inguruan plazaratu izan diren estereotipoak, mendez mende indarra hartzen joan ziren eta denboraren poderioz, emakumeek eurek ere onartu zituzten estereotipo horiek, ideologia kultural orokorraren parte baitziren.

### **a. Emakumea eta isiltasuna**

Emakumeen hizkerari buruz zabaldu izan diren estereotipoen artean, emakume hiztuna eta emakume isilaren arteko dikotomiaz hitz egin dezakegu lehenik eta behin. Emakume isila ederra eta esanekoa da; hiztuna, aldiz, alferra, kontakatila, gezurtia, ezjakina... da. Horren lekuko dira ondoko errefrauak:

*"La mujer lista y callada de todos es alabada."*

*"Mujeres y almendras las que no suenan."*

*"La bona dona calla y la dolenta xerra (La mujer buena calla y la mala habla)."*

*(LOZANO; 1995: 24)*

Emakume isilaren bertutea aldarrikatzea ez da gainera mendebaldeko gure kulturaren soilik gertatu izan den zerbait Chileko arauco indioen artean, esate baterako, emakumea ezkontzean, gizonaren etxera joaten baita bizitzera eta hara iristean hormari begira eseri eta isilik egotea besterik ez baitzaio eskatzen bai eta inori begietara ez begiratzea ere. Hilabete batzuk igaro ostean soilik uzten zaio emazteari hitz egiten.

Azken finean, emakume isila goraiatzeko emakume horren sumisioa, obedientzia goraiatzeko baino ez da. Ezin dugu ahaztu, hizkuntza bera eta hizketa, askatasunaren erakusle direla eta horixe izan dela hain zuzen ere mendeetan zehar emakumeari ukatu izan zaiona: bere ideiak, desioak, nahiak... espresatzeko askatasuna.

#### **b. Emakumea eta gezurra:**

Isilik egoten ez den emakumearen hizketa, gainera gezurrez jositako hizketa dela ere esan izan da eta aurreko kasuan bezala, honetan ere, erretrauek, herri kultura eta literaturaren lekukoek, ematen digute horren berri:

*"Palabra de mujer no vale un alfiler."*



*"Quien coge la anguila por la cola y la mujer por la palabra,  
haga cuenta que no coge nada."*

*"Fe de gente de enaguas escrita está en el agua."*

*(LOZANO; 1995: 39)*

### **c. Emakumea eta itxurakeria:**

Emakumearen hizketa hala ere, gehiago lotu izan da pentsatzen duena ez esatearekin, gezurretan aritzearekin baino eta horren zergatia ezin hobeto azaltzen du Lozanok ondoko hitzekin:

*"La insinceridad de la mujer está estrechamente relacionada con el fingimiento, el decir lo contrario de lo que se piensa... Puesto que la única aspiración de la mujer durante siglos fue conseguir marido, es lógico que todos sus esfuerzos se concentraran en el logro de una apariencia agradable, aun a costa de ocultar la verdad para satisfacer lo que se esperaba que fuera." (LOZANO; 1995: 40)*

Emakume hizketari egozten zaion ezaugarri honen helburua, beraz, gizonezkoen nahietara egokitzea da. Gizonezkoek argi uzten zuten nolako emakumeak nahi zituzten emaztetzat eta hori betetzeko, sarritan, emakumeek euren printzipioak, ideiak, nahiak, desioak... ezkutatu behar zituzten.

**d. Emakumeen hizketa gaiak:**

Gezurti eta hiztuna izateaz gain, emakumeari maiseatzailea izatea ere egotzi izan zaio baina, nola gainditu zitzakeen emakumeak mendeetan zehar bere familiak eta etxeak ezarritako mugak? Nola hitz egin zezakeen emakumeak bere ezagutzatik kanpo zegoenaz? Eta zertarako hitz egin gizonaek bere iritziei jaramonik egingo ez zieten jakinda?

Mendeetan zehar, emakumeen hizketa gaiak euren etxe eta familietan aurkitu dute muga ez baitute muga hori apurtzeko aukerarik izan ez hezkuntza mailan, ez kulturalki, ez eta sozilaki ere.

Gizonaek eten gabe kritikatu izan dituzte emakumeen hizketa gaiak, garrantzirik gabekotzat joz baina esan beharrik ez dago horri aurre egiteko aukera bakarra eta eraginkorrena hezkuntza dela eta hezkuntza hori izan dela mendeetan zehar emakumeari ukatu izan zaiona.

Lehen ere aipatu dugun ideiarra itzultzen gaitu honek; hizkuntza eta hizketa, askatasun "armak" dira eta horiek emakumearen esku uzteak beldurra eman izan die gizonaek, emakumeen astakasun horrek euren boterea kolokan jarri zezakeelako (gerora ikusi eta frogatu ahal izan dugun bezala).

**e. Emakumea eta kultura:**

Baina ez dezagun pentsa, pentsamolde hori hain aintzinakoa denik, XIX. mendearen amaieran Harvard unibertsitateko irakasle batek

zientifikoki frogatu baitzuen (hori adierazi zuen berak behintzat), ikasketek emakumearen emakortasuna gutxitzen zutela. Emakume ororen patua eta gizartean zuen funtzioa, emazte izatea zen eta ondorioz, emakumeari ematen zitzaion hezkuntza horretara bideratuta zegoen:

*"Las mujeres hilen y no estudien."*

*"Mujeres y libros, siempre mal avenidos."*

*"Mujer con letras, dos veces necia."*

*(Lozano; 1995: 53)*

Egoera horretan, hezkuntza eta kulturarekiko interesa azaltzen zuten emakumeak gaizki ikusita zeuden gizartean eta satirarako gai ere bihurtzen ziren. Esate baterako, Molière-k 1659an Parisen taularatu zuen *La Precieuses ridicules* obran tertulia literarioak antolatzen zituzten emakumeen satira burutu zuen non emakume hauek zerabilten hizkuntzaren zuzentasuna eta handitasuna (handitasun nahia bere juzkuen arabera) salatzen zuen<sup>2</sup>.

Beraz, emakumeak ez zuen aukera gehiegirik estereotipo horietatik aldentzeko; hiztuna, ezjakina, maiseatzailea... izan zitekeen edota kulturagatik interesa erakutsiz gero, barre egiten zioten.

---

<sup>2</sup> Geroago ikusiko dugun bezala, horixe da gaur egun gizarte hizkuntzalariek emakumezko eta gizonezkoen hizketak desberdintzeko erabiltzen duten ezugarrietako bat: emakumeek zuzenago hitz egiten dute, euren hizkuntza araututakotik gertuago dago gizonezkoena baino.

Orain artean, literaturak emakumeei buruz esandakoak ikusi ahal izan ditugu, baina, zer esan izan ote dute gramatikoek emakumeen hizkeraz? Estereotipoak hartu ote dituzte egia absolutu eta zientifikotzat?

**f. Emakumeen hizketa hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik:**

Lehen gerturapen bezala, Otto Jespersen hizkuntzalari daniarrak 1922an esandako hitz batzuk ekarri nahi nituzke gogora:

*"...las mujeres mucho más a menudo que los hombres cortan sus frases sin terminirlas porque empiezan a hablar sin haber pensado lo que van a decir." (LOZANO; 1995: 62)*

Beraz, horrelako ideietatik abiatuta, argi ikus dezakegu gramatiko eta hizkuntzalariek eurek ere (nahiz eta denak ezin sar ditzakegun zaku berean), gizartean indarrean zeuden estereotipoetatik edan zutela euren ekarpenak egiterako orduan.

Idea esanguratsua da Jespersen berak azaltzen duen ondoko hau ere:

*"La gradación entre las respectivas ideas no se marca gramaticalmente, sino emocionalmente, por el acento y la entonación"*

*(LOZANO; 1995:63)*

Azken aipu honetan argi eta garbi ikus dezakegu emakumearen hizketaz Jespersen eta garaiko beste hainbat gramatiko eta

hizkuntzalarik zuten ikuspegia: emakumearen hizketak ezer gutxi zuten arrazionaletik eta sentimentuetan oinarritzen zen. Pentsamendu hau muturrera eramanez gero, emakumeari eta bere hizketari arrazoa ere ukatu egiten zitzaiola ondoriozta dezakegu.

Emakumeek euren elkarrizketetan erabiltzen zuten hiztegia ere aztergai izan zen hizkuntzalari hauentzat eta euren ikerketen ondoren, emakumeena gizonezkoena baino hiztegi mugatuagoa zela ondorioztatu zuten eta horren zergati bezala, gizonezkoek euren pentsaera emakumeek baino zehatz eta zuzenago azaltzeko zuten beharra argudiatu zuten.

*"El campo léxico tradicional de la mujer cubre el ámbito de las tareas de la casa, el de la socialización infantil y el de las relaciones con los demás, marido, vecinos, amigos y otros, mientras que los hombres son especialistas temáticos de su campo de acción, trabajo o profesión, deporte y, muy particularmente, política." (BUXÓ; 1978:50)*

Balmori-k ematen digu emakumeen hizketaren hirugarren ezaugarri bat, zeinak ikerketa soziolinguistikoetan zeresana duen oraindik orain. Autore honen hitzetan, emakumeek erabiltzen duten hizkuntza oso aberatsa da neologismo eta arkaismoetan.

Esanak esan, argi ikus dezakegu XX. mendeko gramatiko hauek, emakumeen eta gizonen hizkeren arteko desberdintasunak plazaratzeko garaian, ez zutela metodologia zientifiko handirik erabili eta hauek ere, gizarte guztiak bezala, euren hipotesiak plazaratzeko garaian estereotipoetan oinarritu zirela. Gaineratu nahi nuke, lehen aipatutako desberdintasun horiek ez zituztela desberdintasun bezala aipatu, akats bezala baizik; gizonezkoen hizkera perfektutik aldentzen zen hizketa modua zen emakumezkoena eta ondorioz, gizonezkoena baino okerragoa, txarragoa.

### **3. ESTEREOTIPOAK GAINDITUZ, HIPOTESIETARA BIDEAN:**

Gure hizkuntza egoera aztertzekeo garaian genero ikuspuntua aplikatzea lagungarri gerta dakigukeela uste dut, gauza jakina baita, generoa, 70eko hamarkadatik aurrera hasi dela ikerketa soziolinguistikoetan aldagai bezala erabiltzen.

*"Ciertoamente éste es quizá el hallazgo consistente más extraordinario de todos los procedentes de los estudios sociolingüísticos realizados en el mundo occidental industrializado" (TRUDGILL; 1980: 72)*

Baina garrantzitsua da, generoa eta sexua desberdintzea, sexuak gizon eta emakumeen arteko desberdintasun fisikoak kontuan hartzen dituen bezala, ezin ahaztu baitezakegu generoaren baitan alderdi sozialak hartzen duela pisua.

Genero ikuspuntua aplikatuz, emakumeen zein gizonezkoen hizkuntzaren erabileraren inguruko hainbat topiko, subjektibitatean edo objektibitatean oinarritzen diren frogatu ahal izango dugu.

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasun linguistikoak munduko hizkuntza gehienetan aurki ditzakegu eta zenbait kasutan desberdintasun hauek hain dira handiak, non hainbat ikerlarik zenbait gizarteri buruz hitz egiterakoan, gizonezko eta emakumezkoek hizkuntza desberdinak hitz egiten dituztela esan izan baitu.

Horren adibide ezagunena, Caribe irlakoa dugu, non esan izan den emakumeek arahuaco-a hitz egiten zutela eta gizonezkoek, aldiz, caribe-a. Trudgill izan da bi hizkuntzen aldeko hipotesia defendatu izan dutenetako bat baina Taylor-ek egoeraren beste ikuspuntu bat eskaini zigun:

*"No estamos ya ante lenguas diferentes sino más bien ante diferentes variedades de la misma lengua, distintas entre sí por algunas parcelas del léxico y unos pocos rasgos morfológicos, entre los que destacan las diferencias de género de los nombres abstractos, gramaticalmente masculinos para las mujeres, y femeninos para los hombres"* (LÓPEZ MORALES; 2004:124)

Hainbat aldiz aipatu izan dira emakume eta gizonezkoen arteko hizkuntza desberdintasunak azaltzeko tabu linguistikoa, hezkuntzaren indarra, prestigioaren kontua... eta egia da horiek guztiek eragiten dutela bai emakumeen zein gizonezkoen hizkuntzaren erabileran eta ondorioz hizkuntzaren egoeran.

*"... prestigio y estigma, red social, conservadurismo y tabú, han sido los principales argumentos de sociolingüistas, antropólogos y dialectólogos para explicar la diferenciación sexual del lenguaje"* (LOZANO; 1995:133)



### **a. Tabu linguistikoa:**

Kultura askotan tabu linguistikoarena, emakumeen eta gizonezkoen arteko hizkera desberdintasunaren oinarrietako bat da.

Kasu askotan, emakumeek ezin dituzte tabu diren hitz hauek erabili eta gizonezkoek baino ez dituzte hitz hauek adierazten. Zenbaitetan, gainera, tabu linguistikoa zigorrarekin indartzen da. Adibide bat jartzearen, ezin dugu aipatu gabe utzi komunitate zuluari emakumeek heriotz zigorra jasaten dutela euren aitagarrebaren edota honen anaien izenak aipatuz gero.

Beste batzutan aldiz, tabua ez da hain gogorra izaten eta emakumeengan duen eragina ez da hain erradikala, besteak beste, norik ez du entzun emakumeek ez dituztela "hitz itsusiak" esan behar? Forma zuzenagoak, hobeto ikusiak erabili behar dituztela?

Tabu linguistikoei dagokienean, ia pentsa ezina da gaur egungo gizarte moderno eta hiritartuetan tabu linguistikoek hizkuntzan eragiteko adinako indarra izatea eta Euskal Herria ere testuinguru horretan sar dezakegu.

Gurea bezalako gizarte konplexuetan tabua eufemismoak erabiliz ekiditen da (gehienbat sexualitatea eta gorputzaren fisiologiaren ingurukoak) baina hala ere, eufemismo horiek emakumeak bere gorputzaren, hizketaren, nortasunaren... kontzientzia hartu ahala gutxiagotzen ari direla esango nuke.

## **b. Prestigioa:**

Tabu linguistikoei eta hezkuntza/heziketari bezainbesteko garrantzia eman zaio prestigioaren auziari ere, emakumeen eta gizonezkoen hizkeren arteko desberdintasunak azpimarratzerako garaian.

*"Las mujeres son más conscientes de la valoración que su comunidad hace de los fenómenos del lenguaje, y apoyan aquellos que obtienen más alto estatus en la evaluación social"* (LÓPEZ MORALES;2005: 127)

Baina non aurki dezakegu joera horretarako arrazoia?

Chambers eta Trudgill-en (1980) ustetan, alde batetik, emakumeak hizkuntzaren bitartez bere estatus soziala indartzeko beharra sentitzen du; bestalde, gizartean integratzeko izan dituen arazoak direla medio, egoera komunikatibo batzuk benetan direnak baino formalagoak direla ebazten dute emakumeek; horrez gain, ezin ahaztu genezake emakumearen heziketan, zuzentasunari jarri izan zaion arreta berezia eta amaitzeko, bi autore hauen iritziz, gizarteak onartzen dituen eta prestigiotsutzat jotzen dituen forma linguistikoak erabiltzeak emakumeen autoestimuan duen eragin positiboak ere badu zeresanik forma prestigiotsuen erabileraren aldeko joera horretan.

### **c. Heziketa/hezkuntza:**

*"La mujer ha sido tradicionalmente educada e instada a actuar «como una señorita», lo cual implica cierto grado de refinamiento en su comportamiento, sus gestos y ademanes, sus modales de cortesía y, por supuesto, sus hábitos lingüísticos" (LOZANO; 1995: 144)*

Beraz, neskak txikiak direnetik hezten dituzte "como una señorita" jantzi, ibili, hitz egin... egiteko eta gizarteak berak ere, horixe eskatzen dio neskatxari/emakumeari.

*"El aprendizaje se inicia en el proceso de socialización lingüística, el cual es adaptativamente necesario y funcional para que la niña se identifique y actúe su rol de mujer. Por ello, en este proceso se orienta a la niña hacia aquellas formas de hablar que mejor pueden reforzar su identidad femenina y que, a la vez, permitan cumplir las expectativas sociales que la sociedad ofrece y prescribe para su sexo." (BUXÓ REY; 1978:108)*

Lehenago ere aipatu dugu heziketak/hezkuntzak emakumeen hizkeran duen eragina, emakumeei, neskatilak direnetik eskatzen baitzaie gizarteak hobesten duen moduan hitz egin behar dutela. Pentsa dezakegu, horiek garai bateko kontuak direla, gure gurasoekin gurekin baino zerikusit gehiago dutenak baina, gaur egun ere, neska bat biraoka entzutean mutil batek baino atentzio gehiago ematen

du/digu. Hau ez al da, arestian aipatutako jarreraren erakusgarri?  
Nik baietz esango nuke.

Baina, horrez gain, emakumearen hezitzaile papera ere lotu genezake emakumearen hitz egiteko moduarekin. Ezin uka dezakegu, emakumeak hizkuntzaren transmisioan eta haurren heziketan duen garrantziak, bere hizkeran ere baduela eraginik eta hori izan daitekeela emakumeak zuzentasunaren eta forma prestigiotsuen alde egiten duen hautuaren arrazoietakoa bat.

*"Su papel tradicional de educadora de hijos está problememata relacionado con esto, pues el lenguaje tiene una función primordial en la socialización de los niños, de ahí que las primeras palabras que balbucimos se conviertan en nuestra lengua materna, aunque ésta la oigamos tanto de labios de la madre como del padre"* (LOZANO; 1995: 144-145)

#### **d. Desberdintasuna aberasgarri:**

Emakume eta gizonezkoen hizkeren arteko desberdintasunaren arrazoiez ari garen honetan, ezin dugu ahaztu gainera, emakumeek urte luzeetan bizi izan duten jazarpena ere:

*"Desde una perspectiva de la dominación, la situación de la desigualdad social consistente en la dominación del varón sobre la mujer que se ha producido históricamente es la razón por la que cada sexo adopta su forma de hablar. Desde una perspectiva de diferencia se considera que los dos sexos*

*pertenecen a distintas subculturas y poseen psicologías peculiares que son las que dan cuenta de un registro femenino y uno masculino". (LOZANO; 1995: 127)*

Baina horrelako ideiekin, sarritan lortu nahi izan dena emakumeen hizkera gizonezkoen hizkerara gerturatzea, emakumeek euren hizkera alde batera utzi eta gizonezkoen hizkeraren ezaugarriak erabiltzea izan da. Hori dela eta, beharrezkoa da emakumeen eta gizonezkoen arteko desberdintasun linguistikoak onartzea, hori egin ezean, ez baita gaindituko emakumeari hainbeste kalte egin dion hizkuntzaren kontzepzio androgenikoa.

Beraz, argi izan behar dugu emakumearen hizkerak mundua bizitzeko era konkretu bati erantzuten diola, besteekiko erlazioak ulertzeko modu jakin bati eta ezin dugu ahaztu emakumeek mendeetan zehar bizi izan dituzten egoera desberdinak hizkera horretan isladatzen direla gure hizkuntzak aberastuz.

### **e. Estereotipoetatik ikerketa zenbaiten emaitzetara<sup>3</sup>:**

Lan honen bigarren atalean, emakumeen hizkeraren inguruan esan izan diren hainbat estereotipo ezagutu ahal izan ditugu, hala nola, emakumeek gizonek baino gehiago hitz egiten dutela, hala ere, estereotipo horren inguruan egin diren ikerketek kontrakoa frogatzen dute. Estereotipo horren indarra hain da handia ezen,

---

<sup>3</sup> Atal honetan aipatuko ditudan ikerketak Irene Lozano Domingoren *Lenguaje femenino lenguaje masculino* (1995) lanean aipatzen dira.

gizonezko eta emakumezkoek neurri berean hitz egiten duten taldeetan ere, emakumeek gehiago hitz egin dutela ebatzen baitute taldekideek. Orain arte egin diren ikerketa guztiek, elkarrizketa mistoetan gizonezkoek emakumeek baino denbora gehiagoz hitz egiten dutela frogatu dute. Esate baterako, Barbara eta Gene Eakins-ek (1978) fakultateetan egindako bileretan burututako ikerketaren arabera, gizonezkoek emakumeek baino gehiago hitz egiten dute bai eta sarriago ere. Gizonezkoek 10,66 - 17,07 segunduz hitz egiten zuten eta emakumeek aldiz, 3 - 10 segunduz. Antzeko emaitzak lortu zituzten Sawcker-ek (1976) eta Mulac-ek (1989) ere. Azken hau gainera ondorio hauetara iritsi zen: sexu bereko bi pertsonen arteko elkarrizketetan biek gutxi gora-behera denbora berdinez hitz egiten dute baina sexu derberdineko hiztunen artean, gizonezkoek beste gizonezkoekin hitz egiten dutenean baino gehiago hitz egiten dute eta emakumezkoek aldiz, beste emakumeekin hitz egiten dutenean baino gutxiago.

Emakumeei, gizonezkoek baino gehiago, elkarrizketetan albokoaren jarduna etetea egotzi izan zaie baina honen inguruan ere badute hainbat ikerlarik zeresana.

Zimmerman eta West hizkuntzalariek (1975), frogatu ahal izan zuten gizonezkoek elkarrizketetan etenen %90a baino gehiago egiten zituztela eta eten hauen helburua, elkarrizketa menderatzea eta elkarrizketaren gaia kontrolatzea litzateke.

Ez Dindia-ren (1987) ez eta Wiemann eta beste-ren (1987) ikerketek ordea, ez zuten desberdintasunik aurkitu emakumeen eta gizonezkoen artean etenei dagokienez.

Murray eta Covelli-k (1988) egindako ikerketan aldiz, emakumeek bai egoera formaletan zein informaletan gizonezkoek baino eten gehiago egiten zituztela frogatu zuten (emakumeek %75 eta gizonezkoek %25).

Deborah James eta Sandra Clarke-k (1993) gai honen inguruan argitaratutakoa aztertu ondoren, elkarrizketetan gertatzen diren etenei dagokienean, ebatzi dute ez dagoela generoaren arabera jokoera patroirik.

Emakumeen hizketagaiak ere, lehenago ikusi ahal izan dugun bezala, kritikatuak izan dira behin baino gehiagotan. Baina, ba al dago desberdintasunik emakumeen eta gizonezkoen hizketagaien artean?

*"A grandes rasgos nosotras preferimos hablar de las personas y los sentimientos, mientras los varones se inclinan por las conversaciones sobre las cosas y las situaciones. Los propios hablantes son conscientes no sólo de que hombres y mujeres hablan de distintos asuntos, sino también de que, incluso cuando conversan sobre la misma materia, lo hacen de forma diferente."* (LOZANO; 1995: 185-186)

Deakins-ek (1989) bankuetako langileek bazkaltzeko orduan zertaz hitz egiten duten aztertu zuen. Emakumeek osatutako taldeetan gehienbat jendeaz hitz egiten zen: lagunak, seme-alabak,

lankideak, bikotea... Bigarren mintzagairik gogokoena lanaren ingurukoa zen eta ondoren osasunarekin (gehienbat pisuarekin) lotutako gaiak zituzten mintzagai. Gizonezkoek osatutako taldeetan aldiz, gehienbat lanaz hitz egiten zen, janariaz, kirolaz eta aisialdiaz hurrenez hurren.

Haas-ek lau, zortzi eta hamabi urtetako haurrek zertaz hitz egiten zuten aztertu zuen 1978an egindako ikerketa batean. Neskek euren artean eskolaz hitz egiten zuten, euren beharrez eta zituzten desioez. Mutilek osatutako taldeetan kirolaz eta denborarekin eta espazioarekin erlazionatutako mintzagaiez hitz egiten zuten. Talde mistoetan aldiz, neskek gehiago hitz egiten zuten kirolaz eta mutilek eskolarekin erlazionatutako gaiez.

Beraz, badago desberdintasunik emakumezkoen eta gizonezkoen artean mintzagaiei dagokienean baina, zergatik jotzen dira garrantzitsutzat gizonezkoen ohiko mintzagaiak eta ez hainbeste emakumezkoenak?

Mintzagaiei dagokienean ere, bada garaia ikuspegi androzentrikoa gainditzeko eta desberdintasun hauek aberasgarritzat jotzeko eta ez emakumea gutxiesteko tresna moduan erabiltzeko.



#### **4. EMAKUMEEN PAPER A EUSKAL GIZARTEAN:**

Aurreko ataletan, emakume hizketaren inguruan aritu gara orokorrean baina, nolakoa da euskal emakumeen hizketa? Ba al du zerikusirik hizkera horrek euskal emakumeak gizartean izan duen tokiarekin?

Behin baino gehiagotan entzun ahal izan dugu, Euskal Herrian emakumearen egoera ez dela historikoki beste kultura askotan izan dena bezalakoa izan. Hamaika aldiz entzun ahal izan dugu Euskal Herrikoa gizarte matriarkala izan dela baina, hau horrela izan al da benetan? Nolakoa zen euskal gizarte tradizionala eta emakumeak zein leku zuen bertan?

##### **a. Euskal gizartea: gizarte matriarkala?**

Oso gai eztabaidatua izan da gurean matriarkatuarena eta esan daiteke buru hainbat aburu aurki ditzakegula gai horri heltzen diogunean.

Anne-Marie Lagarde-ren hitzetan (2001),

*"Edozein gizarte tradizional bezala, euskal gizartea mitoan sortua da, baina patriarkatuarekin ez du zerikusirik. Horrek ez du esan nahi aita ez dela onartzen, alderantziz baizik. Euskal kultura tradizionalak emakumearen lekuari lehentasuna ematen dio, eta horri esker etxean edo olhan antolamendua oso berdinzalea da."*

Euskal arbasoen matriarkatuaren inguruan tesia Estrabonek formulatu zuen "Ginekokrazia" terminoa erabiliz. Honen hitzetan euskaldunengan/kantabriarren izena ez ezik ondarea ere emakumeen bidez pasatzen zen.

Estrabonek azaltzen duenaren arabera, erabakietan gizon eta emakumeek, biek, hartzen zuten parte, emakumeek beren esku zuten zeregin sinbolikoa eta berau hitzarekin transmititzen zuten.

Sistema honek aita onartu eta errespetatzen du baina ez da sistema androzentrikoa eta berau, mitologia aztertuz ere berresten da.

*"Las proyecciones de la mujer ocupan un lugar predominante en la mitología vasca"* (MUJER VASCA. IMAGEN Y REALIDAD; 1985: 25)

Euskal mitologiako pertsonaiarik ezagun eta garrantzitsuena Mari da; emakumea; euskaldun guztion ama.

*"J.M. Barandiaranen arabera, funtzio asko eta askotarikoak pilatzen dituen jenio femeninoa edo izaki sekretua da Mari. Horregatik jainko gorenekotzat jotzen da. [...] Euskal jainkosaren izena bera Mari edo Amari da, Maya edo Amaia, eta horrek amaren ahaide bihurtzen du. Ama Lurraren arketipo edo sinbolo erradikala da Mari"* (GARAGALTZA & ORTIZ-OSÉS; 2006: 124)

Matriarkalismoaren aldeko arrazoi desberdinak eman izan dira gurean, hala nola, euskal gizartearen antzinatasuna; ugaltzeko, ernaltzeko gaitasunaren garrantzia; familia eta erlijioaren garrantzia, edota berdintasunaren goratzea. (MUJER VASCA. IMAGEN Y REALIDAD;

1985: 47-53)

## **b. Euskal emakumea gizarte tradizionallean:**

### ***Euskal emakumea eta etxea/baserria:***

*" La casa era el lugar de residencia y a la vez, lugar de trabajo, es decir, integraba las funciones de producción, reproducción y consumo. Como era habitual en toda Europa, las tareas de reproducción, es decir, todas las relativas al nacimiento, cuidado y educación de los hijos, así como la organización y abastecimiento del hogar y el cuidado del resto de los miembros de la familia, eran responsabilidad exclusiva de las mujeres, mientras que los trabajos orientados a la reproducción se compartían con el hombre." (LA MUJER EN EUSKAL HERRIA; 2001: 12-13)*

Beraz, emakumea zen euskal gizartean etxeaz eta bertan bizi ziren guztiez arduratzen zena eta gizona aldiz, landako lanaz arduratzen zen, baratzaz, abereez, soroez... eta ardura hauek emakumearekin banatzen zituen.

Hori horrela izanda, emakumeak Euskal Herrian, Iberiar penintsulan eta Frantzian ez zuen papera betetzen zuen etxeko, baserriko produkzioan eskumena baitzuen.

Emakumearen lana baloratzea Vasconiako gizartearen ezaugarria zen baina XVIII. mendean, Trentoko Kontzilioaren ondoren Europan zabaldutako familia-hierarkia eta gizonezkoen indartze sozialaren ohiartzunak iritsi ziren Euskal Herrira, euskal baserri eta etxeetara; familietara.

Kontraerreforman sortutako emakume eredu berriak ez zuen erraz lortu euskaldunen artean indarra hartzea baina, XVI-XVII. mendeetan monarkia frantziar eta espainiarrak bere botere eta indar guztia erabili zuen euskal gizonezkoek eta emakumeek (bereziki) eredu berri harri men egin ziezaioten (azkenean gertatu zen bezala).

Beraz, esan dezakegu, garai honetan amaitu zela euskal gizartean matriarkatua (inoiz matriarkaturik izan bazen) edota lehen aipatu dugun bezala, euskal gizartearen erakusgarri zen emakumeen eta gizonezkoen arteko parekotasuna.

***Emakumeak gizarte tradizionalan zuen lekuaren zenbait froga<sup>4</sup>:***

1. Emakumeak gizonezkoarekiko berdintasuna zuen guraso-ahalmena erabakitzeke eta tutore izateko. Honi dagokionean, erabateko desberdintasuna zegoen Espainia eta Frantziako usadioekiko bai eta zuzenbide erromatarreko arauetara ere.
2. Politikaren arloan, etxeak (eta ez gizonak) zuen botoa, eta normalean gizona joaten bazen ere, emakume alargunak ere joan zitezkeen (eta hala gertatzen zen batzuetan) biltzarretara.
3. Arlo penalean, euskal usadioek oso gogor zigortzen zituzten emakumeen aurka egindako indarkeriak. Lapurdin eta Zuberoan esaterako, bortxatzaileei lepoa mozten zitzairen.

---

<sup>4</sup> Emakumeak betetzen zuen lekuaren froga hauek Anne-Marie Legarde-k *La mujer en Euskal Herria (hacia un feminismo propio)* lanean idatzitako *Euskal gizarte tradizionalaren izaera* ataletik aterak dira.

4. Dotearekiko ere, sexu desberdintasunik ez zen egiten eta ohitura hau da agian, herri patriarkaletako usadioen kontrakoena dena.
5. Arlo publikoan, Jose Antonio Azpiazuk, dokumentuetan oinarriturik, XVI. mendean, emakumeak Euskal Herriko merkataritza-ekonomian eta agintaritzako lekuetan izandako parte-hartze garrantzitsua azpimarratzen du.
6. Erlijioaren arloan, ezaguna da emakumeak hileta-erritu askotan eta beste zenbaitetan zuen eginkizunaren garrantzia. Emakumea zen euskal gizarte tradizionalen bizien eta hilen arteko lotura egiten zuena; familiako kide guztien ardura zuena, bai biziena bai eta hilena ere.
7. Artearen arloan, ezin dugu zokoratu emakumeak ahozko literaturari egindako ekarpena ezkontzetan eta hiletetan egiten zituzten inprobisazioen bidez, Mitxelenak eta Orpustanek frogatu zuten bezala. Emakumeak egindako ekarpen honen erakusgarri dugu esate baterako, Garibay-k bildu zuen Milia Lasturkoaren eresia zeina ustez senarrak hildako Miliaren ahizpa baita eresiaren egilea.

*"Sera bien referir en el antes de pasar adelante, como dicha Doña Emilia de Lastur, habiendo fallecido moça de parto, su marido Pedro Garcia de Oro se entendio que quería casar con Doña Marina de Arraçola, a quien de antes estaba aficionado.*

*Hizo mucho sentimiento dello una hermana de Doña Emilia, y  
venida de Deva a Mondragon canto las endechas siguientes en  
cierto día de sus honras, cosa muy usada en este siglo:*

*Cer ete da andra erdiaen çauria?*

*Sagar errea, eta ardoa gorria.*

*Alabaya contrario da Milia:*

*Azpian lur oça, gañean arria*

*Lastur-era bera doçu, Milia.*

*Ayta jaunac eresten dau elia,*

*Ama andreac apaynquetan obia.*

*Ara bear doçu Milia.*

*Iausi da cerurean arria,*

*Aurquitu dau Lastur-en torre barria,*

*Edgui dio almeneari erdia.*

*Lastur-era bear doçu, Milia.*

*Arren, ene andra Milia Lastur-co,*

*Peru Garciac eguin deuscu laburto:*

*Eguin dau andra Marina Arraçolaco.*

*Ezcon bequio, bere bidea dauco"*

*(Armiarra; Klasikoen Gordailua)*

Gizarte tradizionallean euskal emakumeak zuen tokia ikusita, argi eta garbi esan dezakegu gurean emakumeak bizi zuen egoera eta Espainian eta Frantzian emakumeek bizi zutenak ez dutela zer ikusirik.

Hori horrela izanda, norainoko zeresana du emakumearen hizkeran honek gizatean duen lekuak?

Euskal emakumeek espainiarrek eta frantziarrek ez bezalako hizkera ote dute? Ala, emakume hizkerak generoarekin zerikusi handiagoa ote du gizarte estatusarekin baino?

### **c. Emakumea eta hizkuntzaren transmisioa:**

Emakumea historikoki hizkuntzaren transmisiorako giltza, erreminta da. Bera da haurrari hizkuntza eta ohiturak transmitituko dizkiona.

*"Su papel tradicional de educadora de hijos está probablemente relacionado con esto, pues el lenguaje tiene una función primordial en la socialización de los niños, de ahí que las primeras palabras que balbucimos se conviertan ere nuestra lengua materna, aunque ésta la oigamos tanto de labios de la madre como del padre" (LOZANO; 1995: 144-145)*

Beraz, ez da hain harritzekoa emakumeek gizonezkoek baino hizkera zuzenagoa erabiltzea azken finean, emakumea hizketaren eredu baita etxeko txikientzat; emakumeak izan baitira haurrari hizkuntza zuzen erabiltzen erakutsi diotenak, haurren hezkuntzaz arduratu izan direnak, nahiz eta gaur egun zeregin hori gurasoek (biek) betetzen duten gizarte gehienetan.

Hala ere, garbi izan behar dugu emakumeak bere tokia izan duela hizkuntzaren transmisioa aurrera eramateko: etxea, sukaldea, esparru pribatua.

*"Finalmente, es también en la cocina más que en ninguna otra dependencia, donde la mujer ha ido enseñando el euskara. Y es en su espacio alrededor del fuego, donde se han ido transmitiendo en las largas veladas los cuentos, las leyendas, los mitos, con todo el contenido de un sistema de valores y de una forma específica de concebir y expresar la realidad."* (DEL

VALLE: 1996: 9)

Hau dela eta, ezin pentsa genezake, Chambers eta Trudgill-ek (1980) dioten bezala, emakumeek gizonezkoek baino zuzenago hitz egitea, estatus soziala indartzeko, gizartean intergratzeko eta euren autoestimua handitzeko soilik gertatzen dela.

Hala ere, horrekin ez dut esan nahi, Chambers eta Trudgill-ek ematen dituzten arrazoiak egiazkoak ez direnik, baizik eta agian, ez direla egia osoa; bakarra.



## **5. EUSKAL EMAKUMEA ETA HIZKUNTZA:**

Aurreko atalean ikusi ahal izan dugu euskal emakumeak zein paper izan duen gizartean historikoki, baina, atal horretan aipatzen diren gizarte tradizionalaren ezaugarri horiek, jakin badakigu, ez direla ez oraingoak ez eta orain dela hainbat hamarkadetakoak ere. Beraz, euskal emakumearen eta hizkuntzaren arteko erlazio aztertu nahi dugunez, historian gertuago geratzen zaizkigun garaietara egin beharko dugu salto.

Erlazio hori aztertzeko eta lan honen lehen atalean egin dugun bezala, lehenik eta behin, euskal esaera zaharretara joko dugu, gaztelaniaz hain ezagun diren emakumearen inguruko topikoak euskaraz ezagutzen ote diren ikusteko.

Bigarren pauso bezala, ahozko euskal literatura tradizionalan, hots, bertsolaritzan, hartuko dugu oinarri emakumezkoek jardun publiko hori nola bizi duten ezagutzeko asmoz.

### **a. Esaera zaharrak:**

Ba ote dago euskal esaera zaharretan emakumeen hizketari buruzko topikoez hitz egiten digun esaerarik? Islatzen al dute euskal esaera zaharrek emakumezkoen hizketaren inguruko esterotiporik, topikorik?

Esaera zaharrak euskal gizarte tradizionalan sortuak direnez eta euskal gizarte tradizionalan emakumeek zuten lekua ikusi ondoren, pentsa genezake ez dugula horrelakorik aurkituko... baina, ezin

ahaztu dezakegu kultura guztietan aurki ditzakegula atsotitzak edota esaera zaharrak eta hauek sarri errepikatzen direla hizkuntza-kultura desberdinetan.

Hasteko eta behin, Asteasu eta Larraulgo ikasleek euren etxeetan bildutako esaera zaharrei begiratu gero, gaztelaniazko atsotitzetan emakumeei egozten zitzaizkien hizkuntzazko "akatsak" (gehiegi hitz egitea; hitza ez betetzea edota pentsatzen denaren aurkakoa esatea) pertsona ororen "akats" bezala agertzen zaizkigu; genero desberdintasunik gabe.

*"Ez gehiegi hitz egin ez baduzu nahi huts egin"*

*"Gaur hitza eman eta bihar haizeak eraman"*

*"Gauza bat pentsatu eta bestea esan"*

*([www.pelloerrot.com](http://www.pelloerrot.com))*

Baina ez da gauza bera gertatzen Gotzon Garatek<sup>5</sup> bildutako atsotitzetan. Hauetan, gaztelaniaz ikusi ahal izan ditugun estereotipo eta ideia berak errepikatzen dira:

1. Emakumea burugogorra da:

*"Ahuntza, astoa ta emakumea ez ditu iñork teman autsiko"*

---

<sup>5</sup> Esaera zahar hauek [www.erabili.com](http://www.erabili.com) webgunean aurki daitezke.

2. Emakumea berritsua da:

*"Eska(ra)tzean andra bi, lapikoan gatz larre(g)i edo bapez"*

*"Andrak zarata asko, baia etxo (egite) gitxi"*

*"Andre barritsuek, sarri baztarrak loi"*

*"Samurrarazteko (haserrerazi) emaztea, gau batez ez akio mintza"*

*"Emakumeak eta arraia aotik galtzen dira"*

*"Emakumeak mingañen indarra"*

3. Emakumea kontakatila/maiseatzailea da:

*"Emakumeari esandako sekretua ez da sekretua"*

4. Emakumea gezurtia da:

*"Emak horari ezurra eta emazteari gezurra"*

*"Emakumea eta gezurra egun berean jaio ziren"*

5. Emakumeak ez du zentzurik:

*"Haize hegoa, emazteen gogoa"*

*"Egazitirik ezta arinago, andreen gogoa baino"*

*"Lumak pisurik ez, emakumeak zentzurik ez"*

*"Emakumia aizia bezalakua"*

*"Emakumeak illia sobran eta garunak faltan"*

*"Emazte zuhur eta agudoa, urria eta zilarra beno baliusuagoa"*

Beraz, badirudi, nahiz eta euskal emakumeak tradizionalki gizartean paper garrantzitsua izan (gizonezkoaren paretsukoa), horrek ez duela estereotipo eta topikoen indarretik babestu eta inguruko hizkuntzetan bezalatsu, euskarazko tradizioan ere, aurki ditzakegula emakumeen hizketa, izaera... gutxiesten duten esaera zaharrak edo atsotitzak.

## **b. Bertsolaritza:**

Atsotitzetan gertatzen dena ikusita, ahozko euskal literatura tradizionaletan zer gertatu den ikustea pauso egokia genuke; bertsolaritzan zer gertatu den ikustea, bertsolariak baitira (bai gizonezkoak bai eta emakumezkoak ere) gure hizkuntza, hizkuntza bizia, ahozkoa, hobekien menderatzen dutenak.

### ***Nola bizi du euskal emakume bertsolariak hizkuntzarekiko erlazioa?***

Emakumea bertsolaritzaren hastapenetatik bertatik aurki dezakegu bertso jardunean.

*"Lekuonaren ustez, XV. mendean, bat-batean aritzen ziren emakumeak eta eresiac<sup>6</sup> ditugu horren adibidea. Profazadorak ere, hitzari lotutako pertsonaiak dira, pertsonai arriskutsuak nonbait, izan ere, Bizkaiko Foruak beren presentzia publikoa debekatu baitzuen 1452an"* (Hernandez, J.M.)

---

<sup>6</sup> Lehenago aipatutako *Milia Laturkoaren eresia* da horren lekuko besteak beste.

Aurreko hitzak horren lekuko, ezin dugu zokoratu emakumeak ahozko literaturari egindako ekarpena ezkontzetan eta hiletetan egiten zituzten inprobisazioen bidez, Mitxelenak eta Orpustanek frogatu zuten bezala.

Beraz, emakumeak aspaldidanik izan du ahozko euskal literaturaren zati hain garrantzitsua den bertsogintzan bere lekutxo. Baina non egon da emakumea eresien garaitik bertsolatitza modernoaren garaira arte? Nola hartu du garai batean utzitako bidea?

Joxerra Gartzia, Andoni Egaña eta Jon Sarasuak<sup>7</sup> aipatzen dutenez,

*"emakume bertsolarien presentziak aspaldi utzi dio anekdota aipagarri izateari."*

Baina, zeren truke?

*"...emakumeak trabesti bilakatu behar izan dira bertsolari izateko. Gizonen planta hartzeko eskatu zaie, inkontzienteki, noski. Estitxu Eizagirrek berak sinatutako blog batean aipatzen duenaren arabera, oholtzara igotzerako, bertso eskolako lehen lezioa hau izan ohi da: «kantatu fuerte, harro, hankak zabaldua eta besoak atzean»." (HERNANDEZ, J. M.;*

*ARGITARATUGABEA: 5)*

Horra hor gakoa; emakumeak "gizonezkoen munduan" integratzeko "gizonezko" bilakatu behar du eta ez bakarrik itxura aldetik, bai eta hizkuntza aldetik ere: gaiak jorratzeko modua, kantaera, hizketa...

---

<sup>7</sup> 2001ean argitaratutako *Bat-bateko bertsolaritza* lana. [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com).

Uko egin behar izan dio, emakume izateari; gizonezkoengandik desberdin izateari: hizketa desberdinak, kantaera desberdinak, gaiak jorratzeko era desberdinak... izateari hein handi batean.

Eta zer esanik ez gaien inguruan:

*"Emakumeen eguneroko bizitzako gai batzuk apenas jartzen diren. Aldizkari pornoekin harrapatutako monagiloaren gaia topiko handia den bitartean, masturbatzen den emakumerik ez dago bertsolaritzan. Ez dago hilekorik (saio txarra egiteko aitzakiazko agurretan ez bada) ez depilaziorik. Haurdunaldiak abortua eskatzeko, edo tripa handiaz barre egiteko, baina ez dago haurdun dagoen emakumearen paperetik kantatutako bertsorik..."<sup>8</sup> ([www.argia.com](http://www.argia.com))*

Baina Estitxu Eizagirre ez da ikuspuntu hau duen bakarra, hainbat emakume bertsolari ere, horren inguruan mintzatzen dira *Emakumea Bertsolari* izenburua duen bideoan:

*"Ez gaude gaietan islatuak; ama, neska-laguna edo alaba da emakumezkoa gaietan"* dio Oihane Enbaitak.

*"Zergatik dago ongi ikusita gizonezko alferra eta gaizki emakumezko alferra?"* gaineratzen du Estitxu Arozenak.

*"Ez dakigu gure posiziotik kantatzen"* adierazten du Alaitz Sarasolak.

---

<sup>8</sup> Estitxu Eizagirrek Sareko Argian esandako hitzak dira hauek.

Miren Artetxek ematen du ordea, aldaketaren erakusgarri izango den berrikuntzaren berri *"Plazan amona bat ikusten denean kantuan, bertsolaritza desberdina izango da, derrigorrean"*.

Hizkuntzaren erabileri dagokionean, *"gizonezkoen umorea, esamoldeak, errejistroak, oso eginak daude eta aldiz, emakumeen batua oraindik sortzeko dago"*.<sup>9</sup>

Baina, zergatik euskal bertsolariak uniformitatera bultzatu dituen joera hau?

Euskal kulturaren indarrak duen garrantziari erreparatu behar diogu galdera horri erantzuteko eta ez indar fisikoari bakarrik, hizkuntzaren, hitzaren indarrari baizik eta indar hau agertzen deneko tokiari: plazari, bizitza publikoari.

Esan beharrik ez dago, hitzaren indarra, publikoki<sup>10</sup>, gizonezkoak izan duela azken mendeetan eta emakumeak bizitza pribatutik publikorako jauzia orain dela ez asko egin duela; oraindik esparru publikoa irabazten ari dela.

*"Hitzak eta hitzaren erabilpenak ez du balio bera batzuen zein besteen ahotan. Kulturak gizonezkoen hitza goraiatu du, indartsua, sendoa, trebea delakoan. Emakumeen hitza, aldiz, gozoagoa eta alaiagoa izango da kontsideratua baina ez du indarrik izango, ez du euskararen indarrik. Ondorioz,*

---

<sup>9</sup> Idem.

<sup>10</sup> Gogoratu emakumea izan dela gurean hizkuntzaren transmisiorako giltza baina transmisio hau bizitza pribatuan, familiarrean eta etxean, gertatu dela eta ez publikoki.

*emakumeak nahiko lan izango du hitzaren bitartez boterea eskuratzen. Hau dena zailagoa bilakatuko da hitzaren indarra zein esparrutan kokatzen den jakinda, plazan edota jendaurrean alegia.”* (HERNANDEZ, J. M.; ARGITARATUGABEA; 11)

Publikotasunerako gizonezkoek duten “erraztasun” hau gainera, txikitatik bertatik hasten da:

*“Mutilak protagonismorako hezten dira eta errazago hartzen dute hitza jendaurrean, eurak dira bertso eskolako dinamika markatzen dutenak. [...] Mutilak lider izateko hezten dira eta espazioa dominatzeko. Plazarako dohain paregabeak dira horiek denak.”* ([www.argia.com](http://www.argia.com))

Maialen Lujanbiok ere, Estitxu Eizagirrek adierazitako ideia hau aipatu zuen UEU-k antolatutako Bertsolantegia ikastaroan:

*“Umeak heziketa desberdinekin heltzen dira bertso eskoletara. Mutilak ohituago daude espazioak okupatzen. Mutikoek egiten dutena ez da a priori zalantzan jartzen, nesken kasuan bai, a priori zalantzan jartzen da, eta gero iritsiko da aintzat hartzea”.* ([www.berria.info](http://www.berria.info))

Eta horrek eragin ukaezina du publikoki abestu, komunikatu behar duen emakumearengan:

*“Emakumeak hitza hartzen duenean eta 200 edo 2.000 lagunen aurrean kantatu behar duenean, burrunba bat sortzen da bere*



*barruan, segurtasuna falta zaio, autokonfiantza".* ([www.berria.info](http://www.berria.info))

Aurreko hitz horiek Maialen Lujanbiok berak, Euskal Herrian emakume bertsolarien erreferente nagusi denak, esan izateak, egoeraren ikuspuntu ezin argiagoa ematen digu. Oraindik orain, emakumeak ez du erabat lortu bizitza publikorako beharrezko autokonfiantza.

Beraz, emakume bertsolariek bertsolaritza, jardun publikoa bizitzeko duten modua ez da gure inguruko kulturetan dutenarekiko desberdina. Generoak, txikitatik, etxean jasotzen dugun heziketatik bertatik, markatzen gaitu beraz eta hor aurkitu behar ditugu emakumeen hizketaren, jarreraren, mundua ikusteko eta honekin harremanetan jarduteko eraren zergatiak.

Zergati horiek aurkitzeak ordea, ez du esan nahi, horiek aldatu behar ditugunik. Ez behintzat aldaketa horrek emakumetasuna alde batera uztea esan nahi badu.

## **6. ONDORIO NAGUSIAK:**

Lan honetan guztian zehar, emakumeen hizketaren inguruan aritu gara, hauek hizkuntzarekin duten erlazioaren inguruan eta gizarteak erlazio horretan izan dezakeen eraginean sakondu nahian.

### **a. Emakume hizketaren inguruko estereotipoak: ba ote da desberdintasunik euskal eta erdal atsotitzen artean?**

Lehen zatian emakumeen hizketa honen inguruko estereotipoetan murgildu gara eta gaztelaniazko errefrauetan aurkitu dugu horretarako parada.

Baina, bigarren zatian euskal errefrauetara jo ostean, ez dugu desberdintasun handirik aurkitu erdal eta euskal atsotitzetan aurki ditzakegun estereotipoen artean.

Parekotasun honen inguruan, alde batetik, eta euskal emakumeak gizartean tradizionalki bete izan duen lekua dela eta<sup>11</sup>, pentsatzekoa izan zitekeen ez zela horrelako parekotasunik aurkituko baina ez da horrelakorik gertatu eta lehen esan bezala, euskal zein erdal atsotitzetan emakumeen hizkeraren inguruko estereotipo beretsuak aurki ditzakegu: emakumea hiztuna, maiseatzailea, itxurakerietan aritzen dena, gezurtia... da beraz, euskal zein erdal atsotitzen arabera.

---

<sup>11</sup> Ikus *Emakumeak gizarte tradizionalan zuen lekuaren zenbait froga* atala.

**b. Estereotipoak alde batera utziz; errealitatera begiratzeko unea:**

Ikusi dugu beraz, estereotipoei dagokinenan, ez dagoela desberdintasunik euskal eta erdal gizartearen artean baina ez ahaztu estereotipoez ari garela.

Ba ote dute estereotipo horiek oinarririk errealitatean?

Hori ere aztertu dugu lan honetan zehar eta hainbat ikerlarik egindako ikerketetan estereotipo horiek errealitatean euskarririk ez dutela frogatu ahal izan da: emakumeek ez dutela gizonezkoek baino gehiago hitz egiten, ez dutela ondokoen jarduna gizonezkoek baino gehiago eteten,...

Beraz, non aurki ditzakegu emakume hizketaren ezaugarrien oinarriak? Gizartean, hezkuntzan, heziketan.

Nahiz eta laugarren atalean ikusi ahal izan dugun bezala euskal emakumeak gizarte tradizionalan toki berezia izan (gizonezkoekin parekotasunean bizitzako hainbat aspektutan), ez dugu aurkitu horrek euskal emakumearen hizkuntzarekiko erlazioan eraginik izanaren zantzurik eta ondorioz, pentsa dezakegu teoriarik gizarte tradizionalan zegoen parekotasuna ez zela hainbesteko - existitzen baldin bazen ere-.

Lan honen azken atalean, gai horren inguruan aritu gara emakume bertsolariak eredutzat hartuta, euren hizkuntza komunikazio tresna bakarrik ez, ogibide ere bai baitute.

Euskal emakume bertsolarien jardunean, bertsolariek eurek onartzen dute oraindik orain, oholtzara igotzean "*euren balio femeninoak direla batez ere behean uzten dituztenak, eta gizonezkoenak markatuz igotzen direla*" eta horren zergatia emakumeak historikoki gizartean izandako lekuan aurki dezakegu.

Euskal emakumea izan da gurean hizkutzaren transmisioaz arduratu dena baina transmisio hori, etxean, sutondoan, pribatuki eraman izan du aurrera emakumeak eta gaur egun, oraindik (nahiz eta geroz eta gutxiago), kosta egiten zaio sukaldetik plazara ohitzea.

Euskal emakumeari jardun publikoan "*segurtasuna falta zaio, autokonfiantza*"<sup>12</sup> eta hor aurki dezakegu emakumeek gizonezkoek baino hizkuntza zuzenagoa, forma prestijitsuagoak... erabiltzaren arrazoia. Segurtasun falta horregatik, hizkuntza publikoki erabiltzerakoan denen onarpena jasoko duten erak, formak erabiltzeko aukera egiten du emakumeak.

Gauzak horrela, eta gizonezko eta emakumezkoen hizketa desberdintasun egoera batean oinarritutako hizkerak izaki, aberasgarri direla ahaztu gabe, gure neskatxen hezkuntzan ahalegin berezia egin beharko genukeela uste dut sukaldetik plazarako bidea errete aldera.

---

<sup>12</sup> Maialen Lujanbiok esandako hitzak dira hauek UEU-k antolatutako Bertsolantegia ikastaroan.

Ez nuke lan hau amaitutzat eman nahi, emakume bertsolarien topaketa batean plazaratu zen eta, deigarri eta garrantzitsu iruditu zaidan ideia bat azpimarratu gabe: "emakumera batua" sortzeke dugu oraindik.

"Emakumera batua"-ren ideia hau bertsolaritzari buruz hitz egitean erabili zuten emakume bertsolariek baina nire ustez garrantzitsua da ideia hau estrapolatu eta gizarte guztira zabaltzea.

Hizkuntzaz gure modura, gure erara, gure ikuspuntu propioetik gozatu nahi badugu, ezin gozatuko dugu gizonezkoen ikuspuntutik; gizonezkoen hizketaren ezaugarriak erabiliz eta gureak alde batera utziz.

## 7. BIBLIOGRAFIA:

- Aretxaga, Begoña (1988): *Los Funerales en el nacionalismo radical vasco*. La Primitiva Casa Baroja: Donostia.
- Buxó Rey, Maria Jesus (1978): *Antropología de la mujer*. Anthropos. Bartzelona.
- Del Valle, Teresa (1996): *Las Mujeres en Euskal Herria. Ayer y hoy*. Egin: Donostia.
- Del Valle, Teresa (2001): *Emakumeak Euskal Herrian (Erresistentziak eta hausturak)*. Gaiak: Donostia.
- Garagalza, Luis & Ortiz-Oses Andres (2006): *Euskal Mitologia. Izena duen guztia omen da*. Kutxa: Donostia.
- Hernandez García, Jone M. (Argitaratugabea): *Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea*.
- Hornilla, Txema (1989): *La mujer en los ritos y mitos vascos*. Txertoa: Donostia
- López Morales, Humberto (2004): *Sociolingüística*. Grados: Madril
- Lozano Domingo, Irene (1995): *Lenguaje femenino, lenguaje masculino. ¿Condiciona nuestro sexo la forma de hablar?* Minerva: Madril
- VV.AA. (1985): *Mujer vasca. Imagen y realidad*. Anthropos: Bartzelona
- VV.AA. (1987): *La Mujer y la palabra*. Baroja: Donostia

- VV.AA. (1988): *La Mujer en la historia de Euskal Herria*. IPES. Formazio Koadernoak.
- VV.AA. (2001): *La mujer en Euskal Herria (hacia un feminismo propio)*. Basandere: Donostia.
- [www.argia.com](http://www.argia.com)
- [www.armiarma.com](http://www.armiarma.com)
- [www.berria.info](http://www.berria.info)
- [www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com)
- [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)
- [www.diariovasco.com](http://www.diariovasco.com)
- [www.erabili.com](http://www.erabili.com)
- [www.pelloerota.com](http://www.pelloerota.com)
- [www.soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org)